



**ZER**  
**ALDIZKARIA**

450. zenbakia  
2018 GARAGARRILLA

**Bizkaitarrei  
Bizkaieraz**



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz) • [info.euskerazaleak@gmail.com](mailto:info.euskerazaleak@gmail.com)

## **KATALUNIAKO AUZIA: Ibilbide historiko laburra (I)**

Angel Larrea Beobide



**Fray Juan  
De Zumarraga**

Zenon Uriguen,  
Pasiotarra



# Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

## 2018-2019 IKASTURTEA

**BIZKAIERAZ 51. IKASTAROA  
IRU MAILLA**

Egunak: astelen eta eguasten  
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 15ean

**51. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO  
3 NIVELES**

Días: lunes y miércoles  
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao 48001

Comienzo: 15 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
ES28 2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.**

**Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.**

**Eskerrik asko!**

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85



## KATALUNIAKO AUZIA: Ibilbide historiko laburra (I)

*Angel Larrea Beobide*

**N**ork ez dau entzun edo eztabaidatu “Kataluniako auzia”ri buruz. Gai onek aspaldian oinarritutako sus-traiak dauz. Goazen bada, ibilbide historiko laburra egitera. Abian jartzeko, Erregimen Zaarrera joko dogu, XVII. gizaldiko gerta-kizunakaz.

Katalunia egoera txarrean egoan XVII. mendearen erdialdean. Espainiar Koroa sor-tu zan ezkeroztik, Errege Katolikoek den-poretatik asita, Kataluniak pisu politiko andia galdu eban Inperioaren kontuetan, Gaztelaren mesedetan. Beraz, XV. mendea-ren amaieratik talde agintari kataluniarrak mugatuta gelditu ziran, euren eremua gober-natzen. Katalunia, aurreko gizaldietan, Erdi Aroan, Aragoiko Koroaren barruan egoan eta orduan sortutako arremanak eta loturak izkuntza eta kultura katalana eukiezan lurraldeakaz (Valentzia eta Balear Irlak), baita Aragoigaz be, asita eukazan baina ez eben ondo funtzionatzen, inperio espainiarrak Mediterraneoaren espazioan egin bear eban politikea (Italiako posesinoetan edo Inpe-rio turkiarraren aurkako gerran) Gaztelako nobleen kontrolpean egoalako. Antxinako komertzio edo merkataritza, Mediterraneo Itsasoan egiten zana, desagertuta, Bartzelo-nako uria eta bertako merkatarien eta arti-sauen gremioak be ez ziran koiuntura onean gelditu; bandoleroen taldeak eta katalunia-rren arteko desadostasunak, gero eta andia-goak egiten asi ziran gainera.



1628. eta 1632. urteetan Katalunia “Armen Batasuna” izeneko akordioaren aurka jarri zan. Zergaitik? “Armen Batasuna”ren alde egoteak zera suposatzen eban: Kataluniak, Gaztelakoak ez ziran beste lurralde guztiak bezala, Espainiar Inperioaren bearrizanetarako (tropak eta dirua) kontribuzinoak geiago eta sarriago egin bear ebazala. Kataluniako egoera ekonomikoa eta demografikoa baina, ez egoan Espainiar Monarkiak egiten ebazan gastu andiei aurre egiteko. Egia da Kataluniaren ekarpena oso baxua zala Gaztelakoa-gaz alderatuta. Olan uste eban Olivares Konde-Dukeak, agintari politiko gorena zanak



Madrilgo gobernuan. Baeukan, bestalde, Kataluniak beste arazo politiko bat “Armen Batasuna”ri ezetz esateko: Foruak. Oneen arabera, ezin zan beartu Katalunia ekarpen erregularrak egiten. Bertako Gorteen eskuetan egoan orrelako erabagiak artzeko gaitasuna, aunda, Kataluniako Gorteen funtzionamendu politiko oso autonomoa izan zan Aragoi eta Gaztela batu ziranetik, mende eta erdi leenago. 1635. urtean egoera orokorra konplexuagoa biurtu zan, Frantzia Luis XIII.a erregeak gerrea deklaratu eutsanean Espainiako

Felipe IV.a erregeari. Katalunia mugan dago, eta monarkia bien arteko gatazka Kataluniara zabaldu zan. 1639an jada, gerreak ainbat istilu sortu ebanzan Katalunian kanpoko soldaduen eta bertako biztanleen artean. Kataluniarrek kezaz beterik eta protestaka asi ziran: alde batetik, noblezia eta burgesia, Olivaresen konfiantzazkoa zan Santa Coloma konde agintariaren kontra, bestetik, nekazariak eta errietako abadeak be gorrotoa eta kritikak agertzen ebezan militarren presentziak ekarzan gastuen aurka, probisinoak,






urien aurkako setioak eta beste era askotako problemengaitik. Txarrena 1640an asi zan, Corpus Christi jaiegun odoltsuan ain zuzen be, matxi-noak eta Bartzelonako urira ailegau ziran nekazariak, azken oneek uztak batzeko kontratuak egiteko eldu barri, matxinatu egin ziran. Euren leen ekintza Santa Coloma iltzea izan zan; gero, Bartzelonako uriaz jaubetu egin ziran. Pau Claris, Urgell-eko eleizgizona, Generalitateko buru politikoa egin eta frantsesengana urbildu zan, areen babes bila. Ceret-eko Paktua izan zan urbilketaren ondorioa, ots, aliantza politiko bat kataluniarren eta Frantziako Luis XIII.a erregea eta bere konfiantzako ministroa, Richelieu kardinalaren artean.

Krisi egoera onek guda sortu eban, izakera aurre-nazionalista dauen gerra, “Segalarien Gerra” (1640-1652)

izenez ezagutua dana. Kataluniarren matxinada au orduko agintarien aurka egin zan, erria nazinoa zala erakutsiz. Amabi urte iraun eban guda onetan, segalariak edo nekazari kataluniarrak izan ziran protagonistak. Azkenean baina, espainiar armadak menperatu egin ebazan. Artean, frantsesak aprobe txau ziran kataluniarren auleziaz; izan be, frantsesen armadak Roselló izeneko eskualdea, Monzón (Aragoiko uria) eta Lleida konkistatu ebazan 1643. urtean. Urrango urtean, Felipe IV.aren, Espainiako erregearen tropek birkonkistatu ebezan Monzón eta Lleidako uria. 1651. urtean, espainiarrek, Juan José Austriakoa printzearen agindupean Bartzelonako setioari asierea emon eutsien. Eta urango urtean, Bartzelona uriko erresistentzia amaitu egin zan, kataluniarren eta frantsesen armadak errendizinoa onartu ebanean, Felipe IV.a errege lez errekonozituz. Urte batzuk beranduago, 1659an, Pirinioetako Bake garrantzitsua siñatu eben Espainiak eta Frantziak. Orduko itunean onako akordio onek artu ziran: Espainiar Monarkiaren aldetik, Felipe IV.ak zin egin eutsen kataluniarren Lege, Foru eta Usadioei; eta Frantziaren aldetik, Rosellóko eskualdeaz gain (bere uriburua Perpiñá deitzen da), Cerdañako eskualdea eta Pirinioetako bailara txiki batzuk be artu ebazan bere administraziopean gaur egun arte.

Amaitzeko, gogoratu Katalunia-ko Ereserki Nazionala “Els Segadors” izeneko segalari matxinatuen ome-



nez dala. XVII. gizaldian krisi andia egoan, Kataluniaz gain, Iberiar Penintsulako beste lurraldeetan be krisia orokorra zan. Portugalgo erreinuak, 1580ko urtetik Inperio espainiarrean integrauta egoana, aprobeixau egin eban gerra egiteko. Garaipena lortu eta gero, Portugal independizatu egin zan 1668. urtean. Gauza bera gertau zan amarkada batzuk leenago Olandan: gerra luzea egin ostean, Inperio espainiarraren interbentzino militarra gainditu eta independizatzea lortu eben.

*Oarra: Artikulu au 2017ko Euskal Astean nik neuk emondako berbaldia-  
ren gaia da.*

**L**ar goratuak izateak, lagunak goratzen ba'gaitue be, kalte egiten dausku. Ori jazoten jake Zaire'ko oillarrari eta muskerzarrari alegi onetan.

Muskerzarra bere adiskidea eban oillarra ikertzera joan zan bere lagunakaz.

Oillarrak dana eukan gertu erreka jauna zan muskerzarra artzeko: Oilloak gertatu eben jatekoa eta edatekoa, antzarrak egopzkiak eta errariak, faraonak lapikokoa, baso-auntzak okelea eta tiña aundietan egoan ardaa. Txitatxuak be pozik egozan jai aundi bat ospatzeko.

Muskerzarrak ondo jan eta edan ondoren, berbaldi au egin eban:

-Oillar adiskidea! Zu zara lumadun guztien artean nagusia, ni eta nire lagunak eskerrak emoten dautzuguz. Pozik gagoz ain ondo artu gozuzalako. Baiña etxerantza, erreka-ondorantza, joan bear dogu. Nik gomutaki bat eskatuko neuskizu, gure adizkidetasuna betiko gogoratu dagiskun.

Oillarrak beingoan erantzun eutson:

-Zer emon neuskizu, adiskide?

-Ara, zeure lumak emon egistazuz kapela eder bat egiteko. Ikusten nabenak esango dauste:

-Non aurkitu dozuz ain luma ederrak?

Oillarraren gangarra zuritu egin zan eta esan eban:

-Ederto! Itxaron apur baten...

Etxera joan eta margo guztietako lumak ekarri ebazan:

-Artu, nai dozuzan guztiak. Oneik kurukuru'renak dira, beste oneik, gorriak, Nkoso'renak eta oneik beti izaten dira erriko nagusientzat. Ikusi beste oneik be, papagaioarenak dira...

Baiña muskerzarrak esan eutson:

-Ai, adiskide! Zer dira guzti orreik zure luma ederren parean? Zu nagusia zara eguzkia agertzen danetik eta beste orreik ez dira ezer zure parean!

Eta beste bagerik, muskerzarrak agiñakaz artu ebazan oillarraren buztaneko lumak eta joan egin zan bere lagunakaz.

Laster urreratu jakozan oilloak babesteko eta ezkutatzeko. Oillarrak beti illun egotea nai eban, lotsatuta ez geratzeko.

Errian gizonak eta umeak, ondo lo egin ondoren, zabaldu ebezan euren begiak, baiña kanpoan oraindiño illun egoan. Gizonak lanera joan nai eben, baiña ezin, kukurrukua entzun bagerik. Andrak txaboretatik urten eben argia eskuan ebela eta sortaldera begiratzen eben, baiña eguzkirik ez! Eguzkia lo egoan kukurrukua entzun arte.

Errekearen beste aldean egoan eta ango egaztien errege zan lengusuak, igarri eban zerbait jazoten zala eta kukurruku egin eban. Laster urten eban eguzkiak eta baketsu geratu ziran guztiak.



Illargiak be urten eban gabaz, eguzkiaren aurkako bira egin eban eta lotara joan zan. Gero beste aitzak etorri ziran eta azkenean urten eban oillarrak beronen etxetik. Barrero lumaz jantzita egoan eta lengo arrotasuna be etorri jakon.

-Arin! Esan eutsen oilloai. Gertatu zaitze! Biar joango gara muskerzarra ikustera.

Urrengo egunean joan ziran pozik eta kantuka. Txitatxuak pozen, mundua aundia zala lenengoz ikusi ebelako. Errekara jatzi ziran eta oilloak arrituta pikua zabaldu eben:

-Zenbat ur!- esan eben guztiak batera.

Muskerzarraren errian dana eta ondo gertatu eben oillarrari ostatua emoteko. Naikoa jan eta edan eben, abestiak eta dantzak be izan ziran eta ur-zaldiak muzturra kanpoan ebela dana begiratzen eben arrituta.

Oillarrak, agur egiteko orduan, berbaldia egin gura izan eban:

-Muskerzar adiskidea! Zu baiño jaun aundiagorik iñon ez dago, zure errialako erririk be ez. Zu zara nagusi uretan eta leorrean. Baiña joan egin bear dot eta gomutaki bat eskatzen dautzut; gauza ona izan daitela, ikusten dabenean guztiak esan dagian:

-Non aurkitu dozu gauza ain eder au?

Eta nik esango dautset:

-Au nire adiskide dan muskerzarraren emoitza da!

-Bai, bai- esan eban muskerzarrak. Ezin ezer ukatu zu lako lagun on bateri!

-Ara! Nire etxeko ormak apaindu bear dodaz. Emoidazu orretarako zure narrua!

Muskerzarrak begiak irutan itxi eta idegi ebazan eta esan eutson:

-Bai! Itxaron apur bat!

Sartu zan etxera eta zaku-bete narrugaz urten eban, neurri ta margo guztidunak ziran.

-Artu nai dozuna! Au basauntzarena da, au akerrarena, au tximinoarena. Eta ikusi beste oneik: leoi-nabarrarenak dira. Oso apaingarri onak!. Zuri munduan dagoan edozer emongo neuskizu!

Baiña oillarrak ez eban poz aundirik agertzen eta esan eutson:

-Baiña zer dira oneik zure narru ederraren parean! Ori bat badala ederra eta sendoa asta-makillen eta gesien aurka, or burdiñeak ez dau egiten kili-kili baiño!

Eta beste bagerik, oillarrak eta lagunak atera ebezan euren aitzoak, muskerzarraren sabela ebagi eben eta narrua kendu eutsoen. Billosik eta makal geratu zan! Errez arerioen eskuetan jausteko eran.

Egun orretatik aurrera muskerzarra eta oillarra etsai biurtu ziran.

† OLAZAR'tar Martin'ek



# MAIATZAREN AMABIAN

(Doiñua: Jainkoaren izenean)

- 1.- Aurrera doa bi mila eta  
amabigarren urtea  
Mendeurrena zabaldu zala  
Gabiriako Etxea.  
Jaunak, amaika garratz ta gozoz  
beteriko bitartea!  
Pasiotarrok au ospatzeko  
Daukagu borondatea,  
gura badozu egina dozu  
ospatzeko konbitea
- 2.-Gabiriako kaban danok  
ginan bardintsu samarrak,  
baina gerora bereiztu ginan  
zuri, gorri ta nabarrak...  
Danok banandu ginduzan penaz  
munduan bizi bearrak;  
baina barriro emen gara gu  
aintxinako lagunzaarrak,  
alkarrekin gaur esan geinkela:  
"Gu gara Gabiritarrak"
- 3.-Txalogarria Batzordearen  
orain arteko jarduna,  
baina beingoan kezka larri bat  
guztioi sortu jakuna:  
Emen betiko amaitzen al da  
kostata asi doguna?  
Geure eskuan dago, lagunok,  
nai dogun etorkizuna,  
lokarri motx au eten baino leen  
emon daigun erantzuna
- 4.- Mila argazki ikusi eta  
naita larri begiz-begi,  
inolaz ere ezin antz emon  
ez gorputz ta ez arpegi.  
Leen umeak ta gaur aita-aititak,  
guzur ez bada, egi;  
Zenbat argazki, zenbat zerrenda,  
askoren ustez geiegi;  
martxa onean dagoz oraindik  
Urteaga ta lantegi

5.- Ainbeste urte ibili gara  
mundurik mundu bakarka,  
baina ez jaku inori galdu  
Gabiriako plusmarka.  
Zorioneko Mendeurrenez  
asi jakuz deadarka.  
Ez jakinean gelditu bada  
inor deitu barik, parka!  
"Gabiritarrok" anaiak gara  
alkar dagigun besarka

6.- Maiatz ilaren amabia da  
grinaz itxaron doguna,  
Gabiriako Ikastetxeak  
danoi eskeintzen deuskuna:  
Asi zanetik Mendeurrena  
dalako ospakizuna;  
an egondako guztiok emon  
bear dogu erantzuna,  
anaiartean ospatu daigun  
"GABIRITARRON EGUNA"

Martzel Andrinua



# Fray Juan de Zumarraga

*Zenon Uriguen, Pasiotarra*



## Istoria zuzen ta leiala:

Istoriaren iturri garbietatik artu doguz Fray Juan de Zumarragaren datuak, biziera eta ekinzazak. Ortarako bidezko ta egiazko istoria ikusi, aztertu, garkotu ta onbideratzea dagokigu gaurko egunetan. Juan Durangon jaioa dogu 1468 urtean eta il 1542an, Juan mutikoak gatzetatik erakusten dau bere etorkizunaren itxaropena. Nundik datorkioz, ain oparo erakusten dituan baliabide ta ganora arrigarriak? Bai, jatorriz, euskal izatetik datorkioz onbide eta eragite goresgarriak: jatortasuna, leialtasuna ta ekintasuna. Eta batez be: “Euskaldun, fededun” izatea. Eliz ikasteak egiñik Franzizkano izan zan bere bizi osoan. Franziskano artean fraidexetan Nagusi da urte batzuetan. Bere sormena ta gaitasuna ikusirik Probintzial izendatua da. 1528 urtean Mexikora doa ta an agertzen dau bere buru argitasun ta kristau fedean Gotzain izateko gaitasuna. 1548’an Durango’ko seme on ta jatorra, fray Juan, Mexiko’ko Arzobispo izateko aukeratua eta izendatua izan zan.

## Agintarien aurrean:

–Fray Juanen ekintza gorena etzan izan Inkisidor izatea, ba izendapen ori gogo txarrez artu eban. –Fray Juan Mexiko’ko lenengo gotzainak, beti aldeztu zituan, jo ta ke, indioen bizia eta eskubideak. Adoretu, eta bere buruaren arrizkuz, salatu zituan, bildur barik, Enperador eta agintariek indioen aurka egiten ebezan injustiziak ta gogorkeria gaitik. Agintariek ez eutsen parkatu eta bere kontrako esamesak, faltsokeriak zabalzen ari ziran “itzez ta egitez”- Emen izan zan Zumarraga gotzainaren izen ona eta bizi omena galtzearen asiera...


## Ekintza goragarriak:

Zumarragaren asmoa Amerikan izan zan erri barriak sortu, lantegiak jarri eta gisa guztiko ogibideak egiten erakutsi. Au izan zan eriotz ordurarte bere asmo eta ekinbidea. –Bere


gogo biziena izan zan askatasuna emon jopuzan bizi ziranai, Fray Bartolome de las Casas jaunagaz batera, agintariei aurrez-aurre ekinik. -Zumarragak ekarri eban Amerikara lenengo imprenta eta argitaratu lenengo liburua, "Breve y compendiosa doctrina cristiana en lengua mexicana y castellana" Fray Juan asi zan Mexiko uri-buruan Katedrala eraiki ta eragiten gaur egun eder ta ikusgarria dana - Gaztedia kristau bidean jartzeko eraiki zituan Ikastetxe batzuk neska ta mutillentzako. -Berak egiña da ospitala "Amor de Dios", abegi ona emoteko iñun artzen ez diran gaxoai. -Berak jarri eban bere etxean, bere liburuekin, lenengo "Biblioteca

del mundo nuevo". -1527 urtean berak fundatu eban " Mexiko iri buruan "Real-Pontificia Universidad" goi-jakintzak ikasteko, ikastetxe gorenetan irakasten dan moduan, baita be teolojia ta Artes ikasteko. -Azkenik Enperador jaunari bein-beiñean eskatzen dautso lege bat joputza lotsagarria debekatzeko. Zorionez 1530 urtean bete zan lege ori. Au bai dala benetan: aurrera jo.

*"Miresgarri da guretzat urietan etxe ederrak ikustea. Eta gure lagunen eder ekintzak ez gaitue miresten" (Zenon de Elea). "Ekintza goragarriak beti dira dantzat onuragarriak"*



# EUSKALERRIAREN EDESTIA-I (IX.)



## 2. ZATIAN.

### Sarreratik datorrena.


### Euskaldunen orduko erlijioa eta izkuntza.

Aita Henao, Cejador´tar Julio eta Luzuriaga´lakoak esaten dabe, euskaldunak, beti izan garala monoteismu edo jainko bakar baten eritxikoak.

Olan izan balitz, begitu nundik nora agertzen da Omosapiensen asierazkoak garela, eurak lenengo denbora orreitan, Egille edo lenengo Jaungoikuaren eritzi-koak ziralako.

Baiña Anesek beste gauza bat diño: Jaungoikuaren izena, gramatikako arloetan gainberan doan itzaren zentzua dala, euskeraz izan balitz: *jauna* eta *goikua*, edo ta *goiko jauna* eta ez latinkumean idatzitako *jaungoikua*´ren itzagaz.

Eta itz ori geien, orain Xn gizaldikoa izango dala, XIIIn gizaldian Aymeric Picaud frantzez lekaideak, IIn Kalixto Aita Santuaren konpostelako *Aymerik´en IIn Liburu Zarrean* esaten dauan



lez, euskaldunak Jaungoikuari *urtziaren* izenagaz deitzen eutsiela gero agertuko dan lez.

Bai esaten dabe, Euskaldunak Etruskoakin seniduta egon giñela, oneri be oscos esaten eutsielako, eta au izan leike, orain 6.000 urte Mesopotamiako Eufrates inguruan Sumeriotarrak kokatuta egon ziran lekutik urten ebelako Etruskoak, gero Arno<sup>(1)</sup> ta Tiber ibaiaren bitartean kokatu ziranak, eta bateratasun guzti onek izan leikezala, irurak Omosapiensen leen oiñarrietako izkuntza eta oituratik etorten dirala esateko, geroago euskal toki izenak esango daben lez.

Etrusko onein sinismenetan, jainko bat bakarrik onartzen eben, eta iru ate zabaltzen ebazan, Jano, Jupiter eta Minerbari euren gurketak egiteko.

*Jano, señor edo dios* esan gura dau euren eroan onaren<sup>(1)</sup> zentzuan, *euskeraz jaun edo señor* esaten dan lez.

(1) Deban dago izen bardiñagaz "Arno-Mendia". (2) Eraman-ona = filosofia moral.



Ortik esan leike datozela edesti aurreko *baskos euskos*´en leiñu bi onein artu emonak.

Euskaldunen artean Illetargieri *goikua* be esaten eutsoen, eta beraren gurketakoak aipatzen ba dituguz *jaun goikua (señor luna)* esangura eban.

Ez gintzazan naastu erri-aldan etorri edo emendik aldatu ziranarekin, gure izkuntza eta RH´ak aurkesten dauan lez, eta gitxiago kristautasunean sartu giñanetik *Jaungoikua*´ren sinismenagaz, danon gaiñetik *berari* eskatzen dautsaguzelako bear doguzenak.

Eta orren esangurean azaldu leiken gauzea dala: europeoak, euskaldunak baiño geiago nastu zirala, orain 5.000 edo 4.000 urte Ekialde-Erditik erri aldan etorri ziran lur-lantzaille edo nekazari ta abelzaiñarekin.

Eta guzti au zeaztuteko, gure egunerarte etorri diran *etxearen* legeak aipatu bear dautsuedaz, zuek berotzeko gogoagaz, ia ausartzen zaretan Arrindatar Anastasioren liburua *Magia y Religión Primitiva de los Vascos* irakurten.

Lenauko euskaldunen artean, garrantzi aundikoa izaten zan sendiaren ekonomi edo buruzpidea zatigabekoa izatea edo etxearena izatea eukezan illobigaz batera, eta ondorengo izaten zanagaitik, ardura orreik aurrera eroatea.

A ta guzti, ondorengo kanpotik geratzen ziran etxe-ko guztiak, euren tellea eukiten eben, ezkondu arte eskubidea emoten eutsoena etxe artan bizi ta eukiten eban gelan lo egiteko, bai eta bertan ilten bazan, etxearen illobian lurperatzeko.

Eginkizun oneikaz argi ikusita, lenagoko euskaldu-

nen oituran ez zala egon ezeren jabetasunik, bizitzaren ordezkartzazko arremantetan *ardurea* izaten zalako jabetasun guztia.

Askatasunezko demokrazi aundia-gorik ikusi leike ?.

Iñork, jabetasunezko norkeririk euki bage, danok: sendi, erri, lurralde, ta aberriko etxearen *zerbitzura edo arduran egoteko* ?.

Badago beste ikusgarri gauza bat be, *baratza*´ren itzagaz sortzen dana: guk baratz edo baratza, landu egiten doguzan lurrai esaten dautsogu. Eta izen edo deitura ori ez da lur landutik datorrena: *ilten ziran jaiio barriak, etxearen alboko teillatupean lurperatzen ziran hurretik baiño*. Geienetan, landatutako ereiñotzaren gerizpean egiten ziranai, kronlekezen<sup>(1)</sup> antzera.

## Sorgiñak, gezurrezko ipuiak, zitalkeria edo ta zantzailkeriak<sup>(2)</sup> gure Euskalerrian.

Gure Euskalerria zarra da, eta bere sakonezko jakintzan naita zentzu aundienetan, zeatz eta egiz jokatu arren,

(1) *Kronleke = cronlech, monumento megalítico consistente en una cerca de piedras y de forma elíptica o circular.* (2) *Euskaldunen Zitalkeria edo zantzail-keriak = picaresca delos vascos.*

eizako aberetasunen erasotik asita, ez eben ezagutzen gauzak ta illuntasunak emoten eutsoezan bildurretik alde egiteko, lan uzteko denboran euren artean alkartzen ziran eta kon-daira lez, gertakizunekaz eta ez eza-gutzen ebazan gauzakin, asma eziñe-rarte irauten eben euren jakin naian, eta bildurragaz gazteak latz ikaratze-ko edo ta euren azle edo irakasle lez, gaztigu<sup>(1)</sup> edo oarkizunetan emoten ebazan euren denborak.

Bide orretatik sortuko ziran asma eziñerarteko aztikeriak<sup>(2)</sup>, Sorgin-eriak, dantza, dantzari, akelarre ta gure Euskalerriko kondaira zarrak, gauza guztiakin sortzen dan lez, baita onera-ko antzerki lez ikasteko ibilten ziranak, edo txarrerako, ostonduka zemai<sup>(3)</sup>, mendeku<sup>(4)</sup>, bildurtzeko begizkoa egin, gazkinaian gibel-asmu<sup>(5)</sup>, gaiztokerira-ko sirats<sup>(6)</sup> ibilten ziranak eta abar.

Orren gaiñetik, eukiten ebazan arremanari eta txantxetan asten zira-nean euren artean gatz apur bat emote-ko artu-emonari, adarra jotea edo zantzailkerietan<sup>(7)</sup> jolaztea izaten zan baserritarren euskal joko nagusia, atzean edo lotsatuta ez geratzeko, au-sartasun edo eurak eukiten eban tre-betasun aundiena erakutsi bearrean geratuz, maltzur edo egi-biurrezko joko orreitan irbazle urteteko.

Euskaldunak, siñiskeritsuak<sup>(8)</sup> izan ote ziran ?. Ez !!.

(1) *Gaztigu = aviso, mensaje, desengaño, castigo.*  
 (2) *Aztikeria = magia, hechiceria, brujeria, encanto, sortilegio, presagio.* (3) *Zemai = amenaza.*  
 (4) *Mendeku = tirria, espíritu de venganza.* (5) *Gibel-asmu = con segunda intención. Gibel-asmukoa izan = ser hombre desegundas intenciones.*  
 (6) *Sirats = intención, deseo íntimo, hado destino. Gaiztokerietan sirats ibili = incrementar las malas intenciones en la adversidad.* (7) *Zantzailkerietan = pilleria, granujada, holgazaneria, truhaneria.*  
 (8) *Siniskeritsuak izan ziran ? = los vascos eran su-persticiosos ?.*

Nai ta sorgingotasunaren ekanduzko arloetan, sorgin guztien irakaslea Anbotoko Mari izan.


Ala, illuntasunak emoten ebazan bildurragaitik izango ote zan guzti ori ?.

Dana dala, amarrugabeko<sup>(1)</sup> euskaldun edo kanpostar bat txantxetako joku orre in inguruan jausten zanean, burua naiko nastuta eroaten ebala bai.

Euskalduna beti izanda egi zalea, eta amarrubageko bide ortatik sartzen ziran adarra joteko maltzurkeri guzti orreik.

Gure aitite amamarentzak, sorgiñak eta sorginakeriak ez ziran guztiz egizkoak izan, euren arteko asmakizunetan joku lez ibilten ebazalako, baiña katolikotasunaren inkisiziozko menperatzaileak ezpata ta suaren legeak agertu ziranean, eurak asmatutako siniskeriak euskal eta

(1) *Amarru-gabeko = ingenuidad, sinceridad, candor.*







munduko giza guztiaren buruetan sartzeko, berezko errigizarteetan ibiltzen ziran asmameneko joku orreik egi lez artuta, ikaragarritzko triskantzak egin ebazan erritarren artean.

Ortik aurrera eta suaren oitura be kristautu egin eben ondoren, euskaldunak Jaungoikoari egiten eutsoezan eskari guztietarako Gurutzea ibili dabe gaurko egunerarte.

**Euskaldun guztiak irakurri bear leukie Anastasio Arrindak 1.985ean idatzi eban: MAGIA Y RELIGION PRIMITIVA DE LOS VASCOS.**

### **Eta emen Iriondo´tar Mikelek arrazoiz esaten dauana:**

Euskalerrian, Kristautasuna ta sartu ziran aurrerakuntzazko trebetasun guztiak, geiago sartu zirala jakintzazko trebetasunaren artu emonetik, endak nastu bidetik baiño.

Orregaitik: gure jendekuntz aundiko euskal nortasunezko izkuntza, European Indoeuropeizatuta ez dagon azkeneko izkuntz bakarra dala, esaten dau.

Mikelek eritzi au nabarmentzeko: *Mundu oneitan, dana dala besterekiko edo besteganakoa<sup>(1)</sup> esaten dau*, eta Ludi onen gizakumea-

(1) *Besterekiko edo besteganakoa = relativo.*

ri kokameneko toki inguruaren eragipenetik kanpo, etorten ziranakaz edozelan nastuteko, zeozerk bereizgarritzen badautso, daukan trebetasun edo ta gaitasunak<sup>(1)</sup> dirala. Eta euskal-erri onetatik, europatik bezala, danak aldatu dirala esaten dau.

Ez jakien gertatu bardin, leenengo Omosapiens edo euskal eragipenetik urrundu zirenai, euren leiñuen naasteakaz erlijioan nastuta, edozer gauzaren gurketara aldatu ziralako.

Begitu, nundik nora agertzen jakun gaurko euskaldunai Omosapiensenekoa *arbasoen aitortza*, gure *Jaungoikua, izkuntza eta oiturazko sinismenak ordutik daukaguzelako gure askatasunaren demokrazizko izaeran*, gaur erakutsi egiten dogun lez, eta *oiturazko Lege Zaarretan* irarrita daukaguzenetik be, errez atara leikezanak.

Orregaitik dakigu gaur Zubiaga eta Legarreta´tar Felix´ek esaten dauan lez: *euskerea* al dalako izkin bakarreraiño eldu leikena, orain ezin dala esan alderatzailleak esaten dabean antzera: *euskerea jatorriz, ezagutzen ez dan mintzoera bat dala*.


Bere izatean, bera dalako berezko aitortzaille, oguzpeneko mintzoeraren<sup>(2)</sup> jaiokera-tik.

Eta *euskerea* orregaitik, mintzoeraren jatorrizko itz bakar bidetik eta onen eredu nagusiko leen analoji arauz, beren jaiokera argitzen dauan *izkuntz bakarra* dalako.

Atutxa´tar Paul



Zornotzan 2.017ko urtean Urrillaren 16an

(1) *Andi-gaitasun* = propensión a crecer. *Gaitasuna* = idoneidad, capacidad, habilidad, disposición. (2) *Oguzpeneko mintzoera* = pronunciación articulada.



# Euskaldun barrientzat ikasten

## Zazpi utsak



---

### ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, .....errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **"ZER"**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Entzun arren San Fermin  
zu zaitugu patroi,  
zuzendu gure oinak  
entzierro ontan otoi.  
**GORA SAN FERMIN**

